



209/2021 Ebazpena, apirilaren 26koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena, zeinaren bidez agintzen baita Osakidetzaren webgunean argitara daitezela aldi baterako kontrataziorako behin-behineko zerrendak, zehazki, lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda, Familia eta Komunitate Erizain Espezialista modalitatekoak, 5. lehentasuna, Osasun sailburuaren 2020ko maiatzaren 13ko Aginduak araututako Covid-19aren pandemiaren konfinamendua arintzeko faserako zaintza- eta kontrol-programan (kasuen eta kontaktuen kontrola Osakidetzan) integratzeko.

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren 183/2020 Ebazpenaren bidez, goragoko mailako funtzioak betetzeko zerrendetan eta aldi baterako kontrataziorako zerrendetan izena emateko epea zabaldu zen, Familia eta Komunitate Erizain Espezialista titulazioa zutenentzat.

Osakidetza Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2011ko maiatzaren 9an emandako Erabakiaren bidez arautu ziren aldi baterako kontratazio-zerrendak Osakidetzan (2011ko ekainaren 6ko EHAA).

Aipatutako 183/2020 Ebazpenaren bederatzigarren atalean xedatutakoaren arabera, **onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak** onartzeko ebazpena eman zen, baztertze arrazoia adierazita, hala zegoekionean. Zerrenda hauek "Covid-19aren pandemiaren konfinamendua arintzeko faserako zaintza- eta kontrol-programa (kasuen eta kontaktuen kontrola Osakidetzan)" martxan jartzeko beharrezko baliabide-premien estaldurara mugatzen dira (Programa hori Osasun Sailburuaren 2020ko maiatzaren 13ko Aginduak arautu zuen), eta aipatutako programaren indarraldira mugatzen dira aldi baterako.

2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren 17.2 atalaren arabera, 2020an zehar jasotako eskaerak 4. atalean aurkeztutako merituei buruz ezarritako irizpideen arabera barematu ondoren, 5. lehentasuneko zerrendak ordenatzen dira. Hori dela-eta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Agintzea Osakidetzaren web-orrian argitara daitezela Familia eta Komunitate Erizain Espezialista kategoriako (5. lehentasuna) aldi baterako kontratazioko behin-behineko zerrendak.

Zerrenda horiek 2021eko apirilaren 27an jarriko dira indarrean.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka **erreklamazioa** jarri dakioke Osakidetzako Giza baliabideen zuzendariari 10 egun balioduneko epean, ebazpena Osakidetzako web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 26an


Osakidetza
Maria Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS
Sin.: Maria Pilar Uriarte Brizuela

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD



209/2021 Ebazpena, apirilaren 26koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena, zeinaren bidez agintzen baita Osakidetzaren webgunean argitara daitezela aldi baterako kontrataziorako behin-behineko zerrendak, zehazki, lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda, Familia eta Komunitate Erizain Espezialista modalitatekoak, 5. lehentasuna, Osasun sailburuaren 2020ko maiatzaren 13ko Aginduak araututako Covid-19aren pandemiaren konfinamendua arintzeko faserako zaintza- eta kontrol-programan (kasuen eta kontaktuen kontrola Osakidetzan) integratzeko.

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren 183/2020 Ebazpenaren bidez, goragoko mailako funtzioak betetzeko zerrendetan eta aldi baterako kontrataziorako zerrendetan izena emateko epea zabaldu zen, Familia eta Komunitate Erizain Espezialista titulazioa zutenentzat.

Osakidetza Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2011ko maiatzaren 9an emandako Erabakiaren bidez arautu ziren aldi baterako kontratazio-zerrendak Osakidetzan (2011ko ekainaren 6ko EHAA).

Aipatutako 183/2020 Ebazpenaren bederatzigarren atalean xedatutakoaren arabera, **onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak** onartzeko ebazpena eman zen, baztertzeko arrazoiak adierazita, hala zegoakionean. Zerrenda hauek "Covid-19aren pandemiaren konfinamendua arintzeko faserako zaintza- eta kontrol-programa (kasuen eta kontaktuen kontrola Osakidetzan)" martxan jartzeko beharrezko baliabide-premien estaldurara mugatzen dira (Programa hori Osasun Sailburuaren 2020ko maiatzaren 13ko Aginduak arautu zuen), eta aipatutako programaren indarraldira mugatzen dira aldi baterako.

2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren 17.2 atalaren arabera, 2020an zehar jasotako eskaerak 4. atalean aurkeztutako merituei buruz ezarritako irizpideen arabera barematu ondoren, 5. lehentasuneko zerrendak ordenatzen dira. Hori dela-eta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Agintzea Osakidetzaren web-orrian argitara daitezela Familia eta Komunitate Erizain Espezialista kategoriako (5. lehentasuna) aldi baterako kontratazioko behin-behineko zerrendak.

Zerrenda horiek 2021eko apirilaren 27an jarriko dira indarrean.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka **erreklamazioa** jarri dakioke Osakidetzako Giza baliabideen zuzendariari 10 egun balioduneko epean, ebazpena Osakidetzako web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 26an


Osakidetza
Maria Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS
Sin.: Maria Pilar Uriarte Brizuela

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD